musikene

**8/2008 Ebazpena, ekainaren 17koa, Musikeneko ikasketaburuarena, aparteko kasuetan irakasgaietan matrikulatzeari uko egiteko prozedura ezartzen duena.**

**Resolución 8/2008, de 17 de junio, del Jefe de Estudios de Musikene, por la que se establece el procedimiento de renuncia de matriculación de asignaturas en casos excepcionales.**

Hezkuntza Ministerioaren 1999ko ekainaren 25eko Aginduan ezarritakoaren arabera, geratzeko eta kurtsoz igotzeko irizpideak kontuan izanda, kurtsoa gainditzen duen ikasleak hurrengo kurtsoko nahitaezko irakasgai guztietan matrikulatu beharra dauka. Horrek arazoak ekar ditzake aparteko kasu jakin batzuetan, hala nola, kurtsoz igotzeko irizpideak bete arren, irakasgairen bat gainditu gabe hurrengo kurtsora igarotzen diren ikasleen kasuan. Halakoetan, ordu-gainjartzeak gerta daitezke kurtso desberdinetako irakasgaien artean; eta egoera horrek ez du ebazpiderik, Musikenek kurtso bereko irakasgaien artean besterik ezin baitu ordutegi koherentea ziurtatu. Halaber, irakasgai bereran bi maila aldi berean egin behar izatea gerta daiteke (adibidez, Musikaren historia I eta II).

Teniendo en cuenta los criterios de permanencia y promoción establecidos en la Orden del Ministerio de Educación de 25 de junio de 1999, un alumno que pasa de curso ha de matricularse de todas las asignaturas obligatorias que conforman el curso siguiente. Lo anterior puede resultar problemático en determinados casos excepcionales, como es el de alumnos que, aun verificando los criterios de promoción, pasan con alguna asignatura pendiente. En tales casos, pueden producirse solapamientos de horarios entre asignaturas de diferente curso, los cuales no son resolubles, porque Musikene sólo puede garantizar un horario coherente entre asignaturas de un mismo curso. Asimismo, también se puede incurrir en la obligatoriedad de seguir simultáneamente dos niveles de una misma materia (por ejemplo, Historia de la Música I y II).

Hortaz, halakoetan sor daitezkeen nahasmenduei konponbidea emateko asmoz, Ebazpen honen bidez honako hau xedatzen dut:

Por tanto, con el objeto de dar solución a los eventuales desarreglos que puedan producirse en estos casos, dispongo lo siguiente mediante la presente Resolución:

*1. artikulua*
Hezkuntza Ministerioaren 1999ko ekainaren 25eko Aginduan ezarritakoaren arabera, kurtsoz igotzeko baldintzak betetzen dituzten baina aurreko kurtsoko irakasgaiak gainditu gabe dituzten ikasleek honako aldaketa hau egin ahal izango dute matrikulazioan:

*Artículo 1*
Aquellos alumnos que verifican las condiciones de promoción de curso, según lo establecido en la Orden del Ministerio de Educación de 25 de junio de 1999, pero tienen asignaturas pendientes del curso anterior podrán realizar la siguiente modificación de su matriculación:

a) Matrikulatzen diren kurtsoko irakasgai bati uko egitea, haren ordutegia bat baldin badator aurreko kurtsoan gainditu gabe duten irakasgai baten ordutegiarekin.

a) renuncia de una asignatura del curso en el que se matriculan cuyo horario coincide con el de una de sus asignaturas pendientes del curso anterior.

b) Matrikulatzen diren kurtsoko irakasgai bati uko egitea, hura gainditu gabe duten irakasgai beraren goragoko mailakoa denean.

b) renuncia de una asignatura del curso en el que se matriculan consistente en un nivel superior de una de sus asignaturas pendientes.

*2. artikulua*

1. artikuluan deskribatutakoaren arabera irakasgai bati uko egiteko eskaerak Musikeneko idazkari akademikoari zuzendu beharko zaizkio, Idazkaritza Pedagogikoan aurkeztu beharreko eskabidearen bitartez, ikasle interesdunaren matrikulazioa egin ondoren. Eskabidearekin batera, matrikula-frogagiriaren kopia bat eta, hala badagokio, ordutegien laburpena entregatu beharko da.

*Artículo 2*

Las solicitudes de las renuncias de asignaturas descritas en el Artículo 1 deberán dirigirse al Secretario Académico de Musikene mediante instancia entregada en Secretaría Pedagógica después de que la matriculación del alumno interesado se haya realizado. La instancia deberá ir acompañada de una copia del resguardo de matricula y, en su caso, del resumen de horarios.

Uko egiteko eskaera Ebazpen honetan ezarritako kasuei badagokie, idazkari akademikoak oniritzia emango du eta ikasle interesdunaren matrikulazioa aldatuko du.

Si la solicitud de renuncia corresponde a los casos establecidos en la presente Resolución, el Secretario Académico otorgará su visto bueno y procederá a la modificación de la matriculación del alumno interesado.